



# Pictionary

**Adina:** 8 - 14 urte.

**Helburua:** Leku desberdinetako irudiak alderatzea eta egiaztatzea.

### Jardueraren garapena:

Itaka-Eskolapioen "Eraldatzen hasteko prest" elkartasun-kanpaina aurkeztuko da. Jiwa pertsonaiak Pictionary jolasa aurkeztuko die eta jarduera nola egingo duten azalduko die.

Gela bi taldetan banatuko da eta talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratuko du banatuko zaien irudia marrazteko.

Ordezkarri bakoitzari irudi bat emango zaio arbelean marrazteko. Txanda bakoitzean banatzen diren irudiek kontzeptu berari egiten diote erreferentzia.

Jolasa, marrazten ari den irudia ahalik eta azkarren asmatzean datza. Jarduera interesgarriagoa izan dadin, talde bakoitzeko ordezkariek aldi berean marraz dezakete beren irudia eta lehenago asmatzen duen taldeak

irabaziko du. Marrazten amaitu ondoren, irakasleak irudien arteko desberdintasunei buruz hausnartuko du, horretarako alderatu eta egiaztatu metodologia erabiliz (eranskina erabil daiteke nahi izanez gero).

Jardueratik ateratako ondorioak eta jardueraren irudiek sortu dizkieten sentimenduak aterako dira.

### Materiala:

- Klariona



### Eranskinak hemen

deskargatu daitezke

ERANSKINA\_IRUDIAK

ERANSKINA\_ALDERATUETAEGIAZTATU